EBAZPENA, 2022ko otsailaren 2koa, Hezkuntza Sailaren Langileak Kudeatzeko zuzendariarena; Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduren behin betiko puntuazioak argitara ematen da, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren Unitateek baloratutako merituak barematu ostean (hautaketa-prozedurak Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitu ziren)

Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez (2020ko otsailaren 27ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduretarako deia egin zen. Agindu horren 8.7 oinarriak zehazten duenarekin bat etorriz, argitara eman ziren Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko azaroaren 11ko Ebazpenaren bitartez, lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin-behineko puntuazioak, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren Unitateek baloratutako merituei dagokienez.

Behin-behineko puntuazio horien aurka izangaiek aurkeztutako erreklamazioak ebatzi dira, eta, halaber, zenbait kasutan hautemandako akatsak zuzendu dira, I. (irakaskuntza-esperientzia), II.1 (ikasketa-espedientearen batez besteko nota), II.3.1, 3. paragrafoa eta II.3.2 1. paragrafoa atalen baremazioari dagokionez. Azaldutako guztiaren ondorioz, aldaketak egin dira behin-behinean esleitutako puntuazioan.

Horrenbestez,

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Argitaratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduren behin betiko puntuazioak, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren Unitateek barematutako merituei dagozkionak (I. eranskineko I eta II atalak eta III.3 eta III.4 azpiatalak eta II. eranskineko I atala eta III.1 eta III.2.4 azpiatalak), Hezkuntza sailburuak 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduren barruan.

Bigarrena.- Lortutako puntuazioen behin betiko zerrenda ondorengo tokian emango da argitara:

> http://www.irakasle.eus («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu behar dira): «EPE 2020. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa. Sartzeko eta iristeko prozedurak» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – kidegoa eta espezialitatea adierazi behar dira – «Emaitzak» – «Lehiaketa-aldia – Partziala».

Hirugarrena.- Behin betiko puntuazioaren aurka ez dago errekurtsoa jartzerik; interesa duten izangaiek gorako errekurtsoa jarri ahal izango dute izangai hautatuen behin betiko zerrendaren aurka (deialdiaren 10.3.2 oinarrian aurreikusitakoa).

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 2a

LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO